

Anaitasuna

IV URTEA—N. 37

Suplemento a la Hoja
ANAITASUNA de Guipúzcoa

Martia-Aprilla (3-4) 1957

ORDUONEKO ALDAKUNTZEA

San Jose egunean, barau eukaristikoaren gaiñean lege barri bat promulgatu dau Aita Santuak munduko katoliko guztientzat. Lege orren bitartez, oraindik aurrera erreztasun geiago daukogu kristiñauok komuniño santua artzeko.

Gaurko bizitzearen gorabeera garrazak, gizonen arteko obligaziño astunak, munduko ekonomiaren metodu barriak, aldatu egin ditue aintxiñako ekanduak eta tradiziñoak. Oraingo gizonak, eguneroko lanbide gogorak eraginda, «**diem verterunt in noctem**» (eguna gau biurtu dabe).

Aita Santuak kristiñau guztien salbaziñoa gura dau. Orregaitik, teknizismoaren eta materialismoaren menpean jausi ez daitezcan, barau eukaristikoaren gaiñeko lege barri onegaz gura izan dau kristiñau guztieri, batez-bere langilleeri, komulgetako erreztasun geiago emon, orrelan graziazko bizitzea euren arimetan ugariago euki al daien, eta eguneroko tentaldiak gorabeera beti zintzo bizi daitezcan.

Lege barri au emoteko, eskubide osoa dauko Aita Santuak. Barau eukaristikoaren gaiñean ez diño ezer Evangelioak. Barau ori dala ta ez tala, ez eban Jesukristok ezer agindu gure artean bizi izan

zanean; olako gauzak Apostoluen eta euren ondorengoen eskuetan itxi zituan.

Orregaitik, Eleizako lege batzuk aldatu leitekez, orretarako motivuren bat dagoanean. Beste batzuk barriz, aldatu eziñak dira, Jaungoikoak berak emonikoak direalako. Divortzioa, esate baterako, ezin leike Aita Santuak ezelan-bere permitidu, matrimoniñoa Jaungoikoaren aginduz ausieziña da-ta.

Kristiñau erlegiñoako lege fundametaletan ez da posible kambiorik. Osterantzekoetan barriz, noizik noizera aldakuntzak izaten dira. Zelan kambietan dan kristiñauen bizimodua, alantxe aldatu oi dira Eleizako legeak. Orixe berori jazo da, oraintsurengo agertu dan barau eukaristikoaren gaiñeko lege barri onegaz.

Artu daigun ondo Erromatik jatorkun lege barri au. Barrizta daigun geuk-bere gure kristiñau bizitzea. Itxi daiguzan, onak izanarren, oitura zarçak, barriak obak badira. Kristiñau mundua aurrera doa. Oraingo katolikoak gitxi erixten deute urtean beingo jaunartzeari. Ogeigarren gizaldiko kristiñau jatorra izateko, sarriago komuniñoa artu bear da. Orixe da gaiñera, Aita Santuaren guraria, lege barri onetan argiro ikusten dana.

Berrnatua.


Portugalete'ko Ejerzizio-Etxea

Aita Goikoetxea nor dan esan bearrik ez daukot. Ezagunegia da Aita Goikoetxea Bizkaiko errietan, bere nortasunaren barri emon bear izateko. A zelako poz-ikara sentietan dogun oraintxe be, Aita Juan Jose eta bere anai zan Felipe arek gure pulpitueta eskukadaka zabaluriko gatza, esakerak eta santutasuna gogora erakarriaz! Zeanurrik seme ospetsu asko emon izan deutsoz Bizkaia. Baña nik uste dot gure pulpituerei beintzat ez deutsozala Jesuita jator, santu bi onek baño andiagorik asko emon.

Aita Juan Jose Portugalete'ko Ejerzi-

Ejerzizio-Etxe au toki polit eta egoki agoan ezin leikean egon. Portugalele-tik Santurtzerantz trenean zoiazala, begiratu eskerraldera, eta antxe aurkituko dozu, tontortxu baten josita, Las Arenas, Neguri eta Algorta erri politeri arpegia emoten deutselarik. Parke eder batek inguratzen dau maitekiro, eta gogo-gauzak ausnar-tuaz pasietako berebiziko lekua da.

ANAITASUNA'rako zertxuok batu nebazanean be, Aita Goikoetxeagaz pasioan nebillen ni, itxas-aize garbi-epelak atsegiñez iruntsiten nebazala.



Portugalete'ko Ejerzizio-Etxea

zio-Etxean bizi da orain. Osasun askorik ez daukonarren, erle fiñagorik ez dozue aurkituko lan-konturako. Nagusiak agindu-ta, oraintxe dago bere anai Felipe zanaren bizitza, bai erderaz eta bai euskeraz, argitara emoteko. Liburu atsegingarria izango auxe Aita Felipe ezagutu genduanontzat!

Baña Portugalete-ko Ejerzizio-Etxera joan nintzanean, beste asmo batzuk ne-roiazan nik. Etxe santu aren gora-berak jakin. Eta jakin be, errez jakin nebazan Aita Juan Jose'ri eskerrak.

—Etxe onen elburu edo finalidadea, mesedez?

—Beste Ejerzizio-Etxe guztiena: Munduan zear dabiltzan gizonok, egun batsuetarako emen batu, eta, ixiltasunik baketsuenian, euren arimeagaz arduratu daitezcan.

—Noiz idigi zenduen Etxe eder au?

—1951'ko Urtarrillaren 5'an bedeinkatu gendun, eta arrezkero astero-astero jardun izan dogu lanean.

—Parkatu, baña enaz ondo konturatu. Zenbateko talde edo tandak artu zeinkiez aste bakotxeko?

—Berrogeita iru kuartu daukoz Etxeak. Bekotxarentzako kuartu bana Urregorrikerik agiri ezarren, kuartuak ondo orniduta dagoz: oe, ikas-mai, jesarleku bi, erropa-eskegitako, ur-korriente, liburu ta guzti... Berrogeita iru kuartu argi eta garbi.

—Ez dira gixti. Eta zaspi urte oneitan, zenbat ejerjizio-egille igaro izan dira, gixti gorabera, Etxe onetatik?

—Atara kontu. Joan zan urtean, 1956'ean, berrogeita bederatzi talde izan genduzan. Eta beste urtietan be, or-emen. Talde orreitan igaro izan dira bai Abade-Frailleak, bai karrera-gizonak, bai fabrika-gizonak eta baita ikasleak be. Danak batuta, 1954'an: milla zaspireun eta ogeita bi. 1956'an: milla zortzireun eta irurogeita zaspi.

Eta Ejerjizioak ezeze, Erretiroak be emon izan dira, ugariak ganera. Ejerjizio-egille eta erretiro-egilleak batuten badozuz, aste bakotxeko berrogeita amaretik gorako taldea urtengo deutsu.

—Ez dozue lan makala egiten! Baña andrazkoakaitik ez deustazu ezer esan. Ez dozuez artuten ala?

—Ez. Gizonetzakoak bakarrik artuten doguz. Emen barik be, andrak badaukie

non Ejerjizioak egin: Las Arenas'ko Erreparadorietan; Bilbo'ko Zabalburu'ko Etxean; «Exclavas de Tivoli» deritxoenen Etxean (Bilbon au be), eta baita Begoñan be. Portugalete'ko Etxe au agertu zanean, Bizkaian gizonentzako Begoñan bakarrik egoan Etxea. Eta Etxe au gizonetzakoentzako jartzean, gure lenen asmoetan ebiltzazanak Nervion aldeko obreruak ziran.

—Eta etorri, nondik etorri izan yatzuezei en gaur arte?

—Nervion aldetik bertotik, jakiña. Onekaz batera antzean karrera-gizon eta ikasleak. Vitori'tik be etorri izan da talde bat edo beste. Eta iru-lau Probintzietako ferrosarioak be euki izan doguz gugaz.


—Erderaz emongo zenduezan, ezta, tanda orreik?

—Bai, ia danak. Baña euskeraz be emoten dira urtean iru-lau, arrantzale eta baserritarrentzat.

—Poztuten naz. Eta uste dof ANAI-TASUNA'ren irakurle bat baño geiago be barri onek asko poztuko dauala. Zu, Aita Goikoetxea, larregi itaundutia ezpada...

—Esan, esan bildur barik!

—Iru-lau euskal talde artuten dozuezala esan deustazu len. Geiago artuko zeunkiez?



—Bai pozik be! Bizkai guztia artu nai genduke guk emen.

—Nik uste dot ba etorriko yatzuezela itxas-erri eta baserrietatik pilloka. Zenbat gizon daukoguzan gaur Bizkaiaren euren arima eta etxietan benetako bake eta pozaren azia erein nai leukenak!..

—Orixe egingo dabe ba Portugaleten: Aita Diretoria lagun, txomiñ-bedarrak eta orretarikoak susterretik atara, eta, orren orde, azi ona erein. Frutu onak emonaz, pozaren biziteko...

—Eta euskerazko liburuek azaldu zabilze?

—Ez ain ondo be. Ejerzizio-liburu bat bakarrik dogu euskeraz: Aita Basabe' rena. Baña ale batzuk ezezik, salduta dago dana. Ganera, gatx egiten yake askori euskeraz irakurtea, ez dabelako txikitatik euskeraz irakurri. Gure gazte denporan ezan olakorik gertatuten. Orduan euskal liburu eta Asterokoak ugari ziran, eta erria oituta egoan irakurten.

—Gaur egin bear gendua?

—Ez dago esan bearrik: euskeraz geiago idatzi, eta geiago irakurri. Ejerzizioetarako liburu bat be ondo bai ondo letorkigu. Kipuzkoeraz badago bat, Aita Jorge Aguirre, Jesuitiarena. Baña Bizkaiaren etxaku oraingo Aita Aguirrerik sortu.

—Alantxe da. Baña, zorionez, gaur egun lan egin-nai ori berotuz doa, berotuz... Ejerzizioak egin naia lez. Ezta, Aita Goikoetxea?

—Ori nai dagiala Zaruak! Esan egiezu Bizkaiko arrantzale eta baserriareri, euren arraiñ eta piñu-kontuak itxita, etorri daitezala bost-sei egunerako Portugaleten'ra.

—Pozik diñautsiet ba!

—Eta, bada-ezpadan, ipiñi eiezu Etxe onen direziñoa be.

—Ona emen ipiñita: «Casa de Ejercicios. Avenida de José Antonio, 18, Portugalete (Vizcaya)». Besterik, Aita Goikoetxea?

—Gaurkoz, ez. Neure izenean agur egin egiezu ANAITASUNA' ren irakurle guztieri, eta... ona etorriko direanean ekingo dogula autu-mautu gozatsuan...



Agur ba, irakurleok, neure izenean be! Zoriona nai dozue? Bakea nai dozue?

ERDUZE PORTUGALETE'KO
EJERZIZIO-ETXERA!!!

Zuetsa.

BARAU EUKARISTIKOA

Oraindik aurrera, kristiñau guztiak obligaziñoa dauke, iru ordu komulgau baiño lenago alimentu solidurik eta alcoholezko edaririk ez artzeko, eta ordu bete lenago alkohol bako edaririk ez edateko: urak ez dau baraua austen.

Aurrerantzean, barau au gorde bear dabe, baita gauerdian naiz goizeko lenago orduetan komulgetan direanak-bere.

Gaixoak, ogean egon ezarren, komulgau orduko, edozein momentutan artu leikeez alkohol bako edariak eta benetako medikamentuak, soliduak naiz likiduak.

Oraindik gora, ez dago zetan eskatu permisurik konfessoreari. Lege barri au kristiñau guztientzako da. Edozein persona trankil trankil komulga leiteke, goian esan dan lez baraua gordetan badau. Bardin deutso, eleizatik urrun edo urrean bizi bada, bear astunik egin badau edo ez.

Alan ta guzti-bere, gauza merituzko egingo dabe, devoziñoz edo sakrifiziozko espirituaz barau egiten dabenak, len egiten zan lez: au da, gabeko amabietatik gora, ura izan ezik, ezer jan edo edan barik egoten badira.

“ ANAITASUNA ” DE VIZCAYA

DIRECTOR:

P. Manuel Berriatua

PP. Franciscanos Bermeo, Vizcaya

ADMINISTRADOR:

P. Teófilo Arzallus

PP. Franciscanos, Zarauz, Guipúzcoa



Irakurri Bizkaiko ANAITASUNA

Eskatu Zarautzera

Urteko suskriziñoa: 12 peseta

GORA EUSKERA

*Arantzazuko euskal batsarvean,
Balendin Enbeita Jaunak egiñiko
bertsoak.*

I

Nire gorputza dar darka daukat
Eta biotza kantari.
Niretzat beintzat gaur Arantzazuk
Zeru txiki bat dirudi.
Bizkai, Gipuzko, Araba, Napar,
Zubero eta Lapurdi,
Gaur Arantzazun besarkaturik,
Berba amonaz alkarri,
Erabagia artuten dabe
Laguntzeko eukerari,
Arantzazuko Ama jarten dabela
Batzar onen zaindari.
Eskerrak emon bear deutseguz
Batzar au ein dabeneri.
Euren alde eskatu deiogun
Arantzazuko Amari.

II

Arantzazuko Ama irri barreka
Dago arantza gaiñetik,
Au batzar guztiz zoragarria
Arantzazun ikusirik.
Bere biotza gurekin dago,
Maitasun garrez beterik.
Euskera maite izan daigula
Ez dau agintzen besterik.
Gaur egunian maitasun ori
la dakusta galdurik.
Zer jazoten dan itandu, eta
Ez dago erantzupenik.
Danok eskuak garbitzen doguz,
Iñok ez dauko errurik:
Onexek dauka gure Euskera
Burua jaso eziñik.

III

Euskalerriko mendi ta zelai,
Uri eta baserriak,
Ibai, erreka, iturritxuak,
Lora ta lilitegiak:
Euskeriaren babes gozoan
Bizi zirian erriak,
Zaindurik bere oitura garbi
Eta egizko legiak,
Galdu gordian ikusten doguz
Bere edertasun guztiak.
Jazoera onen errudun gara
Euskaldun erdelzaliak.

IV

Euskalduna naz entzun nai dogu,
Eta gaiñera arrokeriz
Esaten dogu euskalduna naz
Izkuntzaz eta jatorriz.
Asko oi dira ospia edo
Aundi izateko egarriz,
Ama Euskera begi ta biotz
Negar malkozko iturriz.
Zapiok kendu ta jagi gaitezan
Euskeraren alde egiz,
Eta maitatu Ama Euskera
Egizko maitasun garbiz.

V

Ez dot esaten erdera bere
Biar dogula baztertu.
Erderia be beste izkuntzak lez
Bardin goratuten dogu.
Erderaz ondo ikasi, baiña
Euskeriagaz ez aztu.
Euskalerririk ez dagoalako,
Euskera galtzen badogu.
Besten gauzari bakian itxi,
Norberarena ondo zaindu.
Euskalerria ez da galduko,
Olan egiten badogu.


VI

Emakumia mundu guztian
Dabil modiai begira.
Nundi edo andi elduko jaku
Modia dagoan lekura;
Jantziko jaku naizta nabarmen
Izan modien jazkera.
Barre egin arren bere itxurari,
Bapere ez deuta ardura.
Emakumetan sartuko balitz
Gure izkuntza modara,
Mundu guztiak egingo leuke
Aunditasunez euskera.

VII

Itxi daiguzan geure arteko
Eztabaidak ziero.
Alkar gaitezan euskaldun danok
Anaitasunez maiterō.
Euskerak, galdu daben indarra

Zigur astiro astiro
 Irabaziko, maitasun garbiz
 Guztiok lan ein ezkeru.
 Ez da indarririk maitasunaren
 Indarra menperatzeko;
 Guk be euskera maite badogu,
 Ez da sekula galduko.
 Itxartu eta jagi gaitezan
 Belutu baiño lenago.



NASTE - BORRASTE

—Inglaterrako Zerveza Saltzailleek Alkartasunak autortu dau, 1955'garren urtean mundu guztian edand an garagardaoagaz, azalean ipiñi leitekezala 8) akorazadu. Ez da gauza makala; larogei akorazadu flotatzen garagardaozko itxasoan. Igazlanean, mundu guztian 346 milloi hektolitro edan zirean. Mundua mundu dan bitartean, gizonak beti edango dau, ardaoa dala naiz zervezea. Ori ezin leitekio galerazo. Baiña alan ta guztiz be, gizonak beti gorde bear leuke neurria. San Paulok auxe diñotso Timoteori: Edaizu ardao apur bat estomanguaren onerako eta zure gatxak arinduteko.

—Bimillagarren urtean Hispanoamerikak 500 milloi habitante eukiko ei ditu. Orain, bere populaziñoa 169 milloikoa da. Gizaldi onen azkenean barriz. Estatu Alkartuetakoa eta Canada'koa baiño bi bidar aundiagoa izango ei da. Hispanoamerikan analfabetismoa euneko irurogetazortziraiño (68°) eltzen da. Estatu Alkartuetan barriz, euneko bosteraño (5%) bakarrik. Hispanoamerikak 100 000 habitanteko, 17 mediku daukoz, eta 5.000 kristiñau bakoitzeko abade bat.

—Nortamerikan, euneko irurogetamabost (75%) familiak automovil bat dauke, eta euneko amarrek (10%) automovil bi.

Ofizio espezial bako beargiñen artean euneko berrogetalau (44%), kofxe baten jabe dira. Azken amar urteotan, automovillen numerua beti gorantz joan da, 51 milloira eldu arte.

—Iparramerikako Estatu Alkartuetan, Gubernuko legeak libre ixten dabe divorzioa. Zazpi senar divorziaduk bakarrik (Tyrone Power Winthrop Rockefeller, John Jacob Astor, Heinrich von Thissen, Reuben Fleet, Tommy Manville eta Billy Rose'k) 29 milloi dolar (1.450 milloi peseta) pagau bear izan difue, euren bizi-alar-gunak alimentatzeko. New York'en oso ezaguna da Richard Wells jauna, divorzio gauzetan guztik jakituna. Beronen ustez, Estatu Alkartuetan 3 milloi senar divorziaduk ia 4 mila milloi dolar ordainduten deutsez urtean urtean euren aurreko ezkontzako andra-semeeri.

—Eisenhower presidenteak bere baiezta emon dau Saint Louis'eko Unibersidadean «Biblioteka Pio XII» fundatzeko. Liburutegi orrek, Vatikanoko bibliotekan gordetan direan manuskritu guztiak eukiko ditu: 600.000 mikrofilm gitxi gorabeera.

—Agata Christie, novelista ospetsua, Bagdad urian bizi da bere senarragaz. Arkeologoa da berau. Agatak auxe idatzi dau: «Andra guztiertzako, senar onenak arkeologoak dira. Zenbat eta zarrago egiten direan emazteak, ainbat eta maitasun gelago daukotsu euren senarrak».

—Cronin eskribitzailleak — «Las Llavés del Reino» idatzi ebanak, gero Gregory Peck egaz ziñera eroan zan novela ederraren egilleak — matrimoniñoaren gaiñean konferentzia bat emon eban bein emakume klub baten. Amaituta gero, andra batek pregunta au egin eutson:

—Zer deritxazu zuk jaiotzen kontrolari?

—Gauza ori entzuten dodan bakotxean —erantzun eutson Cronin'ek—, beti etorren jat burura nire gurasoen bostgarren umea naizala.

—Suezia'n, beargin batzuk, zentral hidrauliko bat egiten egozala. dinamita kargak ipinteko atx bat zulatuten asi zireanean, ainbeste txori abia aurkitu eben bertan. Gauza arrigarria! Langilleak lortu egin eben permisua, txoritxuak bakean ixteko, arik-eta kumeak egaz egin arte.

Azkenaldi onetan atsegiñez beterik ikusi doguz Bizkaiko erri batzuetan inguruko eleiztarrentzat multikopistaz illero egiten direan orritxoak. Or dagoz Etxebarriako «Gure Erria», Aulestia ta beste iru erriko «Zeutzat». Yurre-n be atera da beste bat. Ain zuzen be, erri baktzak bere bizimodu berezia izaten dau, eta erritik kanpora joan bearrean aurkitzen direanak be, luzaro izaten dabe erriagaz lokarri bat. Eta orri oneik geiago ta geiago finkatu leikiez zorioneko artu-emonok eta erritarren nortasuna sendotu, eta influentzia zabalagotu.

Gaur egunean munduko aurrerakuntzak direala-ta, leen baiño askozaz be errezago da erri-espírituaren indarra erritarren artean zabaltzea, naiz-eta sakabanatuta egon, ze naikoa da multikopista bat lokarri ori geroago ta geiago sendotzeko.

Zorionik gartsuenak emon bear deutesguz lan eder ori asi daben abade bear gin eta zintzoori, ze olan egiten da benetako lana Euskalerrriaren bizitzaren alde gaur egunean beintzat. Alegia, erritar baktxaren nortasuna sendoa eta argia izan ezkeri, naiz-eta baktxak bere modu apartekoa izan, Euskalerrri osoaren nortasuna izugarritzko neurrian sendotzen da; ta fedeak berak be kabi ohea ta beroagoa eukiko leuke buru landuotan, zentzun obeagoko izanez gaiñera.

Leengo egunean atsegiñez beterik leidu dogu "Zeruko Argia"n, Nafarroako erri batean, Valcarlos-en, lan bera egiten dala, eta sekulako karta biotzetiko bat argitaratu dabe aldizkari orretan, Ameriketako Estadu Alkartuetan dagoen erritabatek bialdua. Ain zuzen be, erderazko ortografia baiño ezekiala emoten dau. Baiña alan da guztiz be, bere ortografia orretan izanda be, ustu zituen bere biotzak eragin eutsozan burutaziño guztiak. Ez ete da au eredu ederra?

Lan ori ezin beste iñok egin erriko abadeak edo erritarrak baiño. Jarraitu daigun, ba, baktxak aal dogun neurrian ta aal dogun eremuan gure erle-lana.

Istun.



BIZILEKUA

IZENA.—Euskaldunen jaioterria, Euskalerrria da.

MUGAK.—Iparraldean Kaskoin-errria eta Bizkaiko Itxasoa, egoaldean Gaztela, eguzkialdean Aragoi, oestean Gaztela: orreexek dira Euskalerrriaren oraingo mugak.

LURRALDEAK.—Ona emen Euskalerrriko lurraldeak.

Nafarroak	10.506	km ² .
Arabak	3.044	»
Bizkaiak	2.197	»
Gipuzkoak	1.884	»
Benafarroak	1.500	»
Zuberoak	817	»
Lapurdik	777	»
Guztietara	20.725	»

AROA.—Gure errikoa baiño klima obarik ezin leiteke errez aurkitu munduan: neguan edur apur bat: udan bero gogortxua egun batzuetan; baiña udabarrri ta udagoiñean, egoaize zoragarri batzuk, txitean pitean euri zaparrada gozoakaz. Aro ona benetan.

ITXAS-BAZTERRA. — Baionako baratik Bilbaoraño doa euskal itxas-bazterra. Lur adar aundi bi daukoz: **Iger** eta **Matxitxako**; kolkoak eta ondartzak, asko.

MENDIAK.—Mendi lerro aundi bat igaroten da Euskalerra guztian zear, eta alderdi bitan banatuten dau lurralde osoa. Españi-aldean, **Mendi-Kantabrikoak** deitzen dira; Frantzi-aldean barriz, **Mendi Pireneok**.

Ona emen zeintzuk direan tontor gorenak: **Ahuñamendi** (2.500 m) eta **Orhi** (2.016 m) Zuberoan; **Ahadi**, **Irati**, **Andia** eta **Urbasa** (1.530) Napparroan; **Haia** eta **Larrune** Lapurdin; **Aitzgorri** (1.544) eta **Ernio** Gipuzkoan; **Gorbeia** (1.538) Bizkaietan; eta **Elgea** (1447) Araban.

IBAIK. — Gorbeia mendi gaiñetik begiratuta, alde bitarantz doaz gure Erriko errekek: batzuk **Bizkaiko Itxasorantz**, besteak **Ebro** ibaierantz.

Araba ta Napparroako errekek **Ebro** rantz doaz (**Zadorra**, **Arga**, **Ega** ta **Aragoi**). Beste guztiak itxasora (**Adur**, **Bidasoa**, **Urumea**, **Oria**, **Urola**, **Deba**, **Artibai**, **Mundaka** eta **Nerbion**).

Gasteis.

LAGUNARTEKO MEZEA

(Misa dialogada en vizcaíno)

Aita Imanol Berriatuak egiña

Bigarren ediziñoa

Foilletu bakotxa: 3 peseta

Ogeitik gora: 2,50

S A L G A I :

Librería Verdes, Correo, 7, Bilbao
PP. Franciscanos, Bermeo, Vizcaya

SINI SMEN BIZIAI

ZARAUZ'ko kale nagosiaren zear ta sakristaua txilin-otsian aurretik joyala, Abade jaunak geixoen Gure Jauna eroyan.

Bat-batean, kalearen beste aldetik, neska-mutillaz beteriko automobil aundi bat agertu zan.

Automobil jaubeak (urrintxu oraindiño) Abade jauna ikusi eta txilin-otsa entzun ebanian, gelditu eban burdia, jantsi zan lurrera eta abots sendo-sendoagaz agindu eban: Guztiok bera, eta belauniko!

Eta gazte talde guztia, ixil-ixillik jatsi zan automobilletik eta belaun biak lurrean ebazala egon zan Gure Jauna eleiz atadian ostendu arte...

—Bakotxa bere lekura!-entzun zan barriri automobil-ugazabearen didarra.

Eta neska-mutillak, algara artean, euren bidean joan zirean...



Itxas-aldeetik biurtzen ikusi neban adiskideari itandu neutsan:

—Goizean-goizetik, zer darabilk, Joxe Mari?

—Ara, erantzun eustan: Eguna argitu orduko kayan «molla»-ganian izan nok. Gero.. axè bai egun-sentiaren ederra! Eguzki aurretik erdi illunpean, odei gorri orlegi polit-politak agertu dozak.

Ikuste eder-zoragarria! Sortaldera begira, zer esan etxakiala luzaroan geratu nok, eta ba-dakik zer egin yoadan?: Burua makurtu, biotza gorantz jaso, eta geldiro-geldiro, itz guztiak ausnartuz, AITA GURE bat errezau... Jaungoikua-aren almen eta anditasuna goratzeko etxoat beste bide obarik aurkitu!

Eta jazoeratxo biok irakurriaz nik auxe diñot:

«EUSKELDUN FEDEDUN», oindiño bere.

BELU